

Hamar antzezlan, estreinako Antzerkialdian

Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo udalek elkarlanean antolatu dute antzerki zikloa; bihar hasiko da, eta hilaren 30era arte luzatuko dira antzezlanak //4

Zumarditxikiari egindako ekarpenak aztertzen ari dira

Herritarrengandik jasotako kezkak eta ekarpenak partekatu ditu Tolosako Udalak proiektua landu duen taldearekin; orain horiek aztertuko dituztela azaldu dute //2

Zubi Berriaren eraisketaren inguruan bilera egingo dute //2

Larresoroko herritarrak Leaburura etorriko dira hilaren 26an

Senidetze Eguna ospatuko dute, eta hamaiketako, bertso-pilota eta bazkaria izango dituzte; uztailean leaburuarrak Larresorora joango dira //3



ALEGIA

KIROLETIK BERDINTASUNERA

BerdinEkin jardunaldia egin dute Alegian, kirolean ematen diren jazarpen, sexismo, arrazakeria eta LGTBI fobia egoeren aurka kirolaren bitartez eginez; Sutarri dantza taldeko sortzaileak ere omendu dituzte //5

L. CARRASCO

IRTEERA 2023ko maiatza

NOAOA BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Elorbidea, 10 • Lasarte-Oria

BAZKARIAK ETA AFARIAK asteazkenetik larunbatera.
Egin zure erreserba!

R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

GAINONTZEKO EGUNETARAKO KONTSULTATU

GARAGARTZA BASERRIA • ADUNA • INFO@RZABALA.COM
943 69 07 74 • RZABALA.COM

Zumarditxikiaren proiektuari egindako ekarpenak, aztergai

Udal gobernua bilera egin duen proiektua idazteaz arduratu den ingeniari eta arkitekto taldearekin, proiektua aurkeztu ondoren, herritarrengandik jasotako ekarpen eta kezka partekatze

Erredakzioa

Abendu hasieran aurkeztu zuen udalak jendaurrean Zumarditxikia berreskuratu eta herritarren eskura jartzeko azken urteetan landutako proiektua. Proiektua ezagutzeko, informazio bilera antolatzeaz gain, hainbat informazio euskarri sortu eta jarri dituzte herritarren eskura, tolosar guztien iritzia jasotzeko helburuarekin. Behin iritzi eta ekarpen horiek jasota, horien berri eman die udalak proiektua garatzeaz arduratu direnei, eta horiek ari dira aztertzen orain.

Udalak zehaztu du Zumarditxikia berreskuratzeko proiektua egin duen arkitekto, ingeniari eta paisajista lan taldearekin bildu dela udal gobernua, jasotako proposamenak mahai gainean jartzeko. «Bilera baliatu dugu herritarrek, proiektua ezagutu ondoren, egindako proposamenak aditu taldeari helarazteko, orain aditu taldeak, horiek aztertuko ditu», adierazi du Olatz Peon Ormazabal alkateak.

Era berean, gehitu du proiektua ez dela udal gobernua egin-dakoa; «baldintza batzuen barruan landutako proiektua da, baita talde profesional batek egindakoa ere, udaletxeko arkitektoekin batera, herritarrek ezarritako baldintzekin».

LANKETA AMAITU ARTE

Udala aparkalekuen gaia lantzen ari da une honetan, eta aparkaleku proposamena itxi bitartean iragarri du aurrerapausorik ez dela emango Zumarditxikia be-



Garatutako proiektu zirriborroaren irudietako bat. ATARIA

rreskuratzeko proiektuari lotuta; eta paraleloki, Zumarditxikia berreskuratzeko proiektua landu duen aditu taldeak tolosarren ekarpenak aztertuko ditu. «Beraz, gai bakoitzak bere bide-orria eta lanketa izango du, eta gobernu honek, orain artean bezala, gardentasun osoz jokatu du herritarrekin, lanketa bakoitzaren berri emanez, une oro», berretsi du alkateak.

Halaber, Peonek nabarmendu du «adostasuna» dagoela abiapuntuan, Zumarditxikia berreskuratzeko egokitasunean. «Zumarditxikia berreskuratzeko proiektuak balio behar du tolosarrak erakarri eta herritarren artean ilusioa pizteko, garrantzi berezia duen eremu batez hitz egiten ari garelako, beraz, proiektua baliatu behar dugu herria kohesionatzeko eta ez zatikatze; irmo eusten diogu eremua herritarren eskura jartzeko eta berreskuratzeko konpromiso eta apustuari; baita ere entzuketariketari, elkarlanean, tolosarren iritzia entzunda eta kontuan hartuta, proiekturik onena mahai gainean jarri eta aurrera eramateko; horixe da gure nahi eta borondate bakarra», adierazi du.

Horiek horrela, udalak gogoratu du parte hartzeak «garrantzi

berezia» izan duela proiektuaren garapenean, bi prozesu aurrera eramanez baitira proiektua tolosarrekin elkarlanean lantzeko. «Lehen parte hartze prozesuan zehaztu zituzten tolosarrek eremua berreskuratzeko baldintza eta helburuak; irizpide horiek eta indarrean dauden hainbat legedi eta plan oinarri hartuta garatu da proiektua: mugikortasun plana, uholdegarritasuna, genero ikuspegia, irisgarritasun uni-bertsala, ibaira jaisteko aukera, besteak beste. Parte hartu nahi izan duen tolosar orok izan du aukera ekarpenak egiteko» azaldu du.

PROIEKTUA GIZARTERATZEA

«Prozesuak iraun duen denbora guzti horretan, herritarren iritzia jaso ditu udal gobernu honek, eta mingarria da prozesuaren amaieran sortzea hainbat kezka, egokiagoa zitekeelako kezka horiek abiapuntuan azaldu eta lantzea. Halere, tolosar guztien iritzia jaso eta entzun nahi izan ditugu, baita orain ere; guztien iritzia direlako garrantzitsuak, adituak noski, eta adituak ez direnak ere bai, horregatik bideratu ditugu gure indarrak azken denboran proiektua gizarteratzera», gaineratu du alkateak.

Zubi Berriari buruzko bilera irekia, etzi

Ura agentziak proiektuari buruzko zehaztapenak emango dizkie herritarrei udaletxeko batzar aretoan egingo duten bileran; lanen nondik norakoen berri emango dute

Erredakzioa

Tolosako Zubi Berria eraitsi, eta berria eraikitze proiektuaren berri emango die Ura agentziak herritarrei ostegunean, hilak 16. 18:30ean hasiko da bilera udaletxeko batzar aretoan, eta bertan Zubi Berria ordezkatzeko proiektua azaltzeaz gain, obraren justifikazioa eta onurak, eta neurrien zein lanen nondik norakoen berri emango dutela esan du Tolosako Udalak. Zehaztu du, era berean, proiektu hori Urak 2015 urtetik indarrean dagoen Ekintza Planean jasota dagoela.

Proiektuaren dokumentazioa Ura agentziaren webgunean

dago, baina bilera irekia baliatu nahi dute informazioa herritarrei helarazteko.

Zehazki landutako hirigintza proiektua eta aurreikusitako lanen berri emango dute –Zubi Berria ordezkatzeko lanak, baranda berriak eta Zerkausiko uholdeen aurkako horma mugikorak–, eta proiektuaren justifikazioa eta onurak, proiektua zein fasetan dagoen, aurreikusitako obraren hasiera data, lanen iraupena eta faseak, obrak iraun bitartean oinezko eta trafiko fluxuak bideratzeko hartuko diren neurriak, eta aurreikusitako jarduketaren aurrekontua izango dituzte hizketagai.

Oria ibaia garbitzeko lanak

Martxoaren 23ko Uraren Mundu Egunari lotutako ekintzak egingo dituzte datozen egunetan; herriko hiru ikastetxeetako ikasleak ariko dira martxoaren 21, 22 eta 23an

Erredakzioa

Datorren martxoaren 23an Uraren Mundu Eguna izango da eta horren harira, Tolosako Udalak jardura desberdinak antolatu ditu. Lehenik eta behin, Oria ibaian garbiketako lanak egingo ditu, urtero egiten duen bezala, herriko hiru ikastetxeekin zein elkarte desberdinekin elkarlanean. Horiek horrela, guztira 300 lagun inguru, 2-3 orduz ariko dira ibai inguruak garbitzen, martxoaren 21ean, 22an eta 23an. Horretarako, beharrezko materiala banatuko zaie parte-hartzaile guztiei. Ekimena Eskola Agenda 2030aren barruan kokatzen da. Ikasle eta elkarleen lanaren osagarri gisa, enpresa aditu baten zerbitzua ere kontratatuko dute, kasu honetan, zailagoak diren puntuak garbitzeko.

Garbiketako lanek herriko ibai

eta inguruak txukun eta garbi mantentzea dute helburu, ingurunearen mesedetan. Hain zuzen helburu hori oinarri, garbiketako lanez harago, Tolosako Udalak sareak jarri ditu jada herriko hainbat zubien azpialdean, kaleko zaborra ibaira jausi ez dadin. 2020an esaterako, Zumalak kalean jarri zituzten aipatutako sareak, eta iaz Berazubi eta Euskaldun Berrien zubian. Oraingoan, Araba etorbidean jarriko dituzte sareak; guztira 211 metro saretuko dira. Datozen urteetan, herriko zubi eta kale desberdinetan sare gehiago jartzea aurreikusita du udalak.

Amaitzeko, Eguzki taldeak egindako eskaera aintzat hartuta eta honi erantzuna emanez, lan horiek guztiak aurrera eramateko foru aldundiak ematen dituen diru laguntza deialdira atxiki dela esan du Tolosako Udalak.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zaintza. Tolosako baserri batean 5 hilabetez (apirila-abuztua) emakume batilagundu, eta eguneroko lanak (etxea eta bazkaria) egiteko pertsona bat behar dugu, egunean 3 orduz, 11:00etatik 14:00etara. Ezinbestekoa da autoa izatea. Harremanetarako: 685750486 edo 653010063 telefono zenbakietara.

Kultur ekitaldi ugari Ibarrran, datozen egunetan

Xantos Agirrezabala herritarraren erakusketa, Martha Escudero ipuin kontalaria eta Eñaut Elorrietaren kontzertua antolatu dituzte

Leyre Carrasco Ibarra

Hil honetan zehar izango da zer ikusi eta entzun Ibarrran, izan ere, kultur jarduera ugari izango dira aukeran.

Bihar bertan 6 eta 9 urte arteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa izango da kultur etxean, 18:00etatik aurrera. Martha Escudero kontalari mexikarra izango da Ibarrran eta gaztelaniaz eskainiko du saioa. Sarrera doakoa da.

Ostiralean, berriz, Eñaut Elorrieta izango da herriko elizan *Fantasia* izeneko bere azken lana modu akustikoan aurkeztu. 19:30ean eskainiko du emanaldia eta hileta egonez gero 22:00etara atzeratuko dute. Sarrera doakoa da, baina aurrez eskuratu behar dira gonbidapenak kultur etxean. Azken bi urteetan

eskuz-esku egindako lanaren emaitza da gernikarraren azken lan hori. Hamar kantuz osatu du, eta diskoan parte-hartu duten musikarien artean Felix Buff, Amorante, Fernando Neira eta Xabier Zeberio artistak daude, besteak beste. Hala ere, zuzenekoan *Fantasia* laneko kantuez gain bere ibilbide osoko kantuek ere eskainiko ditu.

Azkenik, Xantos Agirrezabala artista ibartarraren *Argialdia* akuarela erakusketa izango da ikusgai apirilaren 5era arte, kultur etxean. Agirrezabalak 25 bat lan jarri ditu ikusgai, eta horietako gehienak Ibarra herria dute gai nagusi edota inspirazio iturri.

Erakusketa astelehenetan 16:00etatik 20:00etara eta asteartetik ostiralerara 10:30etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara ikusi daiteke.

Auzoko taldeak boluntarioak behar ditu

Leyre Carrasco Ibarra

Ibarrra etorri berri diren herritarrei euskal kultura ezagutaraztea, eta haien eta gure kulturaren arteko zubia eraikitzea da Galtzaundik bultzatutako Auzoko egitasmoaren helburua.

Helburu horrekin ostegunero elkartzen da Auzoko osatzen dutenen taldea: alde batetik, Ibarrrako zenbait boluntario; eta, bestetik, berriz, Ibarrran denbora gutxi daramaten hainbat bizilagun, jatorri kultural desberdinetakoak.

Une honetan atzerrian jaiotako dozena bat lagun biltzen dira Auzokon, eta horiekin beste lauzpabost ibartar ere elkartzen dira. Bertan, euskal kulturaren berri ematen diete, eta euskarazko lehen hitzak ikasten dituzte.

Auzoko «familia» bat dela dio Galtzaundik, «boluntarioek eman egiten dute, baina jasotzen dutena gehiago da: beste kultur-etatik ikasten dute, migratzaileek izaten dituzten zailtasunez ohartzen dira, aurreiritziak alboratzen dituzte, eta ibartar berriak ezagutzen dituzte».

Ostegunero elkartzen dira 17:00etatik 19:00etara kultur etxean, eta hemendik aurrera hila-betean behin elkarte gastronomiko batean, «nork bere herrialdeko jakiak prestatuz elkar hobeto ezagutzeko asmoz».

Harrera sozial horretan lagunduko duten boluntario euskaldunak falta dira, eta horretarako interesa duten herritarrek 688 738 417 zenbakira deitu, edo galtzaundi@galtzaundi.eus helbidera idatzi beharko dute.

Bi herrien arteko harremana ospatzeko eguna

Leaburu-Txaramako eta Larresoroko herritarrek Senidetze Eguna ospatzeko dute martxoaren 26an



2019an Leaburu-Txaraman ospatu zuten Senidetze Eguna. LEYRE CARRASCO

Leyre Carrasco

Leaburu-Txarama

Hilaren 26an bisita berezia jasoko dute leaburuarrek herrian. Pandemiaren eraginez izandako bi urteko etenaldiaren ostean, urteroko hitzordua berreskuratzea lortu dute Leaburu-Txaramak eta Larresorok (Lapurdi), eta Senidetze Eguna ospatzeko dute berriro ere.

Urtean, gutxienez, bi aldiz elkartzeko ohitura izaten dute, bi herrietako lagunek. Sagardotegi garaian izaten da lehen hitzordua, Leaburun. Hurrengo igandean izango da, hilaren 26an. Goizean iritsiko dira Larresorokoak Leaburura, eta herriko dantzariekin egingo diete ongietorria. Ondoren, hamaiketako eskainiko dute guztientzat herriko sagardogileen sagardoarekin.

«Azkenaldian gazteei parte hartzea gehiago kostatzen bazaie ere, bere garaian izugarrizko festa antolatzen genuen», oroitu du Maria Luisa Uzkudun zinegotziak. Hala ere, urtero egitarau «aberatsa» prestatzen dute, eta berezitasunak tarteko, aurtengo ere hala izango da.

Aurten toka alde batera utzi, eta horren ordez, eguerdian bertso-pilota jaialdia egongo da Arkaitz Esnaola eta Jon Erasun pilotariak elkarren aurka jokatzeko

duten partidarekin. Bertan, Sebastian Lizaso eta Mikel Mateo bertsolariek parte hartuko dute, eta Elene eta Haizea trikitilariak batera ariko dira eguna girotzen. Herriko Ostaturia sagardotegi bilakatuko da, eta bertan prestatuko dute bertso bazkaria.

UZTAILEAN

Bigarren hitzordua, berriz, uztailan egiten dute eta bisita alderantzizkoa izaten da. Orduan, Leaburu-Txaramako herritarrek izaten dira Lapurdira joaten direnak. «Beraiek ere gurearen antzeko egitaraua prestatzen dute; dantza edota sega ere egin izan dugu, besteak beste», aipatu du Uzkudunek. Gainera, herrian izan ordez, basoan antolatzen dituzte ekitaldiak, erreka baten on-

doan, «ingurune oso polit-ean».

Hogei urte baino gehiago dira Leaburu-Txaramako herritarrek Larresoroko Ote Lore elkarteak kideekin harremanetan hasi zirela; 1994az geroztik, hain zuzen. Senidetzearen ofizialtasuna, berriz, 2014ko abenduan onartu zuten, eta hori islatzeko ekitaldia ere izan zuten Leaburu-Txaraman. Orduetik, bi udal-entzen senidetzearen berri ematen duten plakak ere jarriak dituzte udaletxeetan. Senidetzea herritarren artean sortu zen harremanari bi udalek «zor» zioten zerbait dela esan du Uzkudunek, eta, geroztik, Leaburu-Txaramako Udalak bere egin du, «ofizialtasunez», harreman hori bultzatzen jarraitzeko helburua.

Horregatik, eta bide horretan jarraitzeko asmoz, Uzkudunek Leaburu-Txaramako herritarrek festara «animatu» ditu: «Oso jende jatorra da eta harreman estua egitea lortu dugu. Guztiok elkarrekin igarotzeko egun polita izaten da. Beraz, honek jarraipena behar duela uste dut, eta ondorengoek ere behar dute».

Bazkarira joan nahi duten herritarrek Ostatura deitu beharko dute izena emateko, 943 67 42 77 telefono zenbakira, eta hilaren 20a izango da horretarako azken eguna.

EGITARAUA

Martxoak 26, igandea

11:00. Ongietorria herriko dantzariak.

Ondoren hamaiketako herriko sagardogileen sagardoarekin.

12:00. Bertso-pilota.

Pilotariak: Arkaitz Esnaola eta Jon Erasun.

Bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Mizel Mateo.

Trikitilariak: Elene eta Haizea.

14:00. Bertso bazkaria herriko Ostaturian.



Aduna, Asteasu eta zizurkilgo alkate eta kultur teknikariek aurkeztu zuten atzo Antzerkialdiko egitaraua Atxulondo kultur etxean. J.M.

Antzerkialdia antolatu dute lehen aldiz Aiztondo bailaran

Bihartik martxoaren 30era bitartean 10 antzerki saio eskainiko dituzte Adunan, Asteasun eta Zizurkilen; haur, gazte eta helduentzako saioak izango dira

Jon Miranda Zizurkil

Bihar emango zaio hasiera I. Antzerkialdiari Aiztondo bailaran, eta orotara, 10 saio egingo dituzte Adunan, Asteasun eta Zizurkilen. Antzerki zikloa aurkeztu dute Atxulondo kultur etxean eta bertan bildu dira hiru herrietako alkate eta kultur teknikariak.

Orain arte Zizurkilen Antzerki Astea egin izan dute, baina aurtengo jautzia eman eta ekimena bailarara zabaltzea erabaki dute antolatzaileek. Iker Urruzola Zizurkilgo alkateak nabarmendu

duenez «oso pozgarria» da antzerki programazio bat bailarako beste bi herriekin konpartitu ahal izatea. «Kalitatezko antzerki eskaintza zabalaz gozatu ahal izango dute herritarrek».

Lankidetzaren emaitza da I. Antzerkialdia eta horrela azpimarratu du Josu Amilibia Adunako alkateak. «Emanaldiak hiru herrietan antolatzeak, herriarrak herri batetik bestera mugitzeko aukera emango digu, bailarako beste herriak bisitatze-ko aukera». Amilibiaren ustez, herritarren arteko harremanak sendotzeko balioko du antzerki

ziklo honek. Hain justu, Adunan bihar abiatuko da Antzerkialdia eta bi emanaldi izango dira. Lehen 4 urtetik gorakoentzat izango da eta bigarrena berriz, 16 urtetik gorakoentzat.

Asteasun hiru saio eskainiko dituzte programazioaren barruan: bi haurrentzako eta bat helduentzako. Pili Legarra Asteasuko alkateak aipatu du hiru herrietako bakoitzak horrelako programazio bat bere kabuz antolatzea «oso zaila» izango litzaitekeela. «Baliabideak hobeto erabili eta horiei zuku handiagoa ateratzea da helburuetako bat.

Aurrerantzean, Antzerkialdia bezalako ekimenekin bide horretan sakondu nahi genuke», esan du Legarrak.

ASKOTARIKO EMANALDIK

Hamar saio egingo dituzte I. Antzerkialdiaren barruan eta mota guztietako publikoarentzat prestatutakoak izango dira. Ohitura duten bezala, Zizurkilen haurrentzako saioak eskainiko dituzte martxoaren 27an, 28an eta 29an. Eta horrekin batera, tradizio luzea duen beste emanaldi bat ere izango da hilaren 30ean, Antzerkialdia amaitzeko. Zizur-

kilgo eskoletako ikasleek eskainiko dituzte emanaldiak Atxulondo kultur etxean. Bi saio antolatu dituzte egun horretarako, 10:30ean eta 11:30ean.

Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo alkateek gonbidapena luzatu diete herritarrei antzerki emanaldietara gerturatzeko eta azpimarratu dute hiru udalerrien ahaleginak bateratzeak egin duela posible ekimen berri honen jaiotza. Urruzolak, hiru herrietako kultur teknikariei esker eman dizkie antzerki programazioa antolatzen egindako lanagatik.

I. ANTZERKIALDIA

Martxoak 15, asteazkena

11:30. Adunako herri eskolan, Aioko itzal antzerki eta txotxongiloak.

21:30. Adunako elizan, 16 urtetik gorakoentzat Esti Curielen 35 huts bakarriketa.

Martxoak 21, asteartea

15:00. Asteasun Gure Kanoa, HH4tik gorakoentzat Pello Errotan.

Martxoak 24, ostirala

19:00. Asteasun helduentzat Andre Zaharren manifestua udaletxean.

Martxoak 25, larunbata

20:00. Atxulondo kultur etxean helduentzat Intxaurrak lana.

Martxoak 27, astelehena

11:00. Atxulondo kultur etxean HH3-5 urtekoentzat Kolorez kolore lana.

Martxoak 28, asteartea

11:00. Atxulondo kultur etxean HH3koentzat Alpitsegia.

Martxoak 29, asteazkena

11:00. Urpekariak antzerki lana LH4-6koentzat Atxulondon.

Martxoak 30, osteguna

10:30 eta 11:30. Ikastetxeen emanaldia Atxulondo kultur etxean.

Mozorro Festa

Bozkatu gustukoena
Ataria.eus

nekatur
Euskadiko Landa Ostatuaren Elkarte

KIMETZ dendako
ANDIA etxeko
jertsea

Kimetz

www.andia.eus • Korreo kalea 35, Tolosa
Ataria.eus-eko erabiltzaileen saria

'NEKA opari TXEKEa'

Nekaturreko edozein ostatueta erabiltzeko 120€ko opari txekia

www.nekatur.net • 943 32 70 90

Epaimahaiaren saria

ERRIGORAKO produktuez
osaturiko 2 kaxa



errigora.eus



AtariKide saria

www.errigora.eus



Berdintasunaren alde, kirolaren bidez

Kirolean ematen diren jazarpen egoeren aurka jarduerak izan dituzte; Sutarri dantza taldeko kideak omendu dituzte



Gazteek nahiz helduek hartu zuten parte antolatutako zitzuzten ekitaldietan. L. CARRASCO

Leyre Carrasco Alegia

Martxoaren 8aren harira, BerdinEkin jardunaldia ospatu zuten herenegun Alegian. Kirola ardatz hartuta, bertan ematen diren jazarpen, sexismo, arrazakeria eta LGTBI fobiaren aurka posizionatu eta ariketa fisikoa eta kirol jarduerak berdintasunarako aukera gisa ulertzeko bidea egitea izan zen egunaren helburua. Horretarako, hainbat kirol jarduera prestatu zituzten goiz osoan zehar.

Herriko frontoian hasi zituzten jarduerak. Bertan, hamabi urtetik gorakoei zuzendutako biinakako basket jaurtiketa eta hiruko txapelketa mistoa egin zituzten. Ordu berean, hamar urtetik gorako herriko neskak futboleko aritu ziren futbol zelaietan. Bestalde, *Ezagutu eta probatu kirol berriak* saioaren barruan, hainbat kirolari beren diziplina ezagutzera eman zuten; hala, Alegian izan ziren Ainhoa Tolosa Kayak surf-eko txapelduna, Eukene Fernandez jabalina jaurtilaria, gimnastika erritmikoan aritzen diren Ibai eta Jone Bengoetxea edota Itziar Huegun hondartza-boley eta boley-pistako jokalaria.

Eguerdian, berriz, nesken eskuz pilota partidak izan ziren pilotalekuan, eta ondoren, helduentzako aerobik saioa egin zuten herriko plazan. Bertan, Txintxarriak Martxan taldekoek ere dantza egin zuten.

Alegiako Hezkidetzak mahaiak antolatutako eguna izan zen herenegun. Mahai hori udalak, herriko guraso elkarteak, ikastetxe horietan berdintasunaren arloaz arduratzen diren irakasleek eta Eztanda talde feministak osatzen dute. Proiektuaren gidaritzak Eiharak eraman du.

SUTARRI DANTZA TALDEARI OMENALDIA

Egunarekin amaitzeko herriko kirolariei eta sustatzaileei omenaldia egin zieten. Hain justu, Marta Iraola, Nati Murua eta Mari Jose Iriarte Sutarri dantza taldeko sortzaileak izan ziren omenduak, «euskal dantzaren transmisioa egiteagatik eta herrian egindako lan guztiagatik» omendu nahi izan dituztela zehaztu zuten.

Izan ere, ibilbide oparoa du Sutarri dantza taldeak, aurtengo 24 urte beteko baititu hiru gurasoren ekimenez sortutako taldeak. BerdinEkin jardunaldiko antola-

tzaileek azaldu bezala, «hasieran 20 ikasleekin hasi bazen ere, 120 ikasle izatera iritsi dira zenbait urtetan, eta ikasleekin batera joan da taldearen eskaintza ere zabaltzen herritarren nahietara». Sortzaileak izateaz gain, urte guzti hauetan, euren borondatez hartu dutela taldearen ardura nabarmendu dute: «taldeak eta irakasleak kudeatzeko, emandak kudeatzeko, dirua biltzeko ekintzak gauzatuz... eta hori guztia trukean ezer eskatu gabe. Esker hitzak besterik ez dugu zuzentzat. Ez dadila haria eten», adierazi zuten omenaldi ekitaldian.



Ziotza pilota eskolakoek jarri zieten txapela. ATARIA

Ziotza pilota eskolakoek jantzi diete txapela

Zizurkilgo festei hasiera emateko ohorea izango dute abuztuko Amabirjin jaietan

Erredakzioa Zizurkil

Txapel Eguna ospatu zuten larunbatean Zizurkilgoen. 28. urtea izan du aurtengo, eta afalostean, Ziotza Pilota Eskolako kideei jantzi zieten txapela. Hain zuzen, beraiek izango dira aurtengo Amabirjinetan, Herriguneko jaien hasierako txupinazoa botatzeko ohorea izango dutenak.

Alex Intza 2020ko txapelduna jarri zuten txapela. Festa batzordeak erabakitzen du nori jantzi txapela, eta aurtengoari dagokionez, Zizurkilgo herriguneko edo Zizurkilgoan aisialdirako aukera bat dela pilota eskola esan dute: «Herriguneko zein Elbarrenako neska-mutilen elkargunea da, pilotan jolasteko giro euskalduneko. Ziotza Pilota Eskolan eman zituzten lehen pi-

lotakadak gaur egun maila ederrean ari diren hainbat pilotarik, baina hori lortzeko pilota eskolaren ardura hartzen duten guraso eta entrenatzaileen lana ezinbestekoa da. Hori da hain zuzen festa batzordetik azpimarratu nahi duguna, pilota eskolak jarrai dezan hamaika herritarrek egin duten ahalegina eta uneotan egiten ari direna, herri giroari ekarpen garrantzitsua egiten diotelako. Txapelaren bidez, aurrera jarraitzeko indarra ere eman nahi diegu».

Txapel Eguna helburu bikoitzarekin sortu zutela azaldu dute Festa batzordetik; batetik, txapela jantzita lagun giroan herritarren batzea, eta bestetik, herri giroa sustatzen lan egiten duen talde edo pertsona bat nabarmentzea.



zozketak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Bidean jarraituz
dokumentala

Martxoak 21 asteartea
19:30ean
Villabonako Gurean



Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Anonyme popular
bertsolaritza saioa

Martxoak 26, igandea
19:30ean
Villabonako Gurean



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA	
23. jardunaldia	
Almoacid - Lauburu Ibarra	1-2

Sailkapena	
1. Pinseque	56p
4. Lauburu Ibarra	41p

Hurrengo jardunaldia	
Otxartabe (3) - Lauburu Ibarra (4)	

HIRUGARREN MAILA	
22. jardunaldia	
Laskorain - Eskoriatza	1-1
Batzarre - Tolosala	3-6

Hurrengo jardunaldia	
Mahas. Labastida (6) - Laskorain (5)	
Tolosala (8) - Antiguoko (1)	

GIPUZKOAKO SENIOR MAILA	
9. jardunaldia	
Lazkao - Ama Teep Tolosala	5-3
Lauburu Ibarra - Ordizia	0-1
Antiguoko - Anoeta	5-1

Hurrengo jardunaldia	
Lazkao (3) - Anoeta (4)	
Ama Teep Tolosala (5)	
Lauburu Ibarra (6)	

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA	
23. jardunaldia	
Palau Tordera Salicru	35
Tolosa CF Eskubaloia	30

Sailkapena	
1. Romo Broker Kirol	40p
5. Tolosa CF Eskubaloia	30p

Hurrengo jardunaldia	
Tarazona (12) - Tolosa Eskubaloia (5)	

1. LURRALDEKO SENIOR MAILA	
19. jardunaldia	
Irauli Bosteko Kirol Kluba	20
Tolosa CF Eskubaloia	19

Sailkapena	
1. Mecalbe Eibar Eskubaloia	33p
8. Tolosa CF Eskubaloia	15p

Hurrengo jardunaldia	
Tolosa CF Eskubaloia (8)	
Mecalbe Eibar Eskubaloia (1)	

Futbola

1. MAILA NAZIONALA	
22. jardunaldia	
Tolosa CF - Burgos	0-0

Sailkapena	
12. Real Racing B	20p
13. Berriozar	19p
14. Tolosa CF	19p

Hurrengo jardunaldia	
San Ignacio (6) - Tolosa CF (14)	

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
GIZONEZKOAK	

25. jardunaldia	
Tolosa CF - Lagun Onak	0-0

Sailkapena	
1. Eibar	46p
12. Tolosa CF	33p

Hurrengo jardunaldia	
Bergara (15) - Tolosa CF (12)	

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
EMAKUMEZKOAK	

22. jardunaldia	
Touring - Tolosa CF	1-1

GORENGO MAILA GIZONAK	
22. jardunaldia	
Beasain - Tolosa CF	3-0
Urki - Billabona	6-1
Anaitasuna - Danena	3-1

GORENGO MAILA EMAKUMEAK	
Kopa, 3. jardunaldia	
Aiztondo Neskide - Segura Goi. 0-2	

1. ERREGIONALA, KOPA	
6. jardunaldia	
Pasaia - Intxurre	3-3

Saskibaloia

EUSKAL LIGA, 1. MAILA	
19. jardunaldia	
Ebaki Solutions - San Prudencio	49
Redline Mekanika TAKE	75

Sailkapena	
1. Redline Mekanika TAKE	17-2
2. Valle de Egues	17-2
3. Ulacia	14-5

Hurrengo jardunaldia	
Ulacia (3)	
Redline Mekanika TAKE (1)	

GIPUZKOAKO 1. MAILA	
10. jardunaldia	
Eguzkitza Sagardotegia TAKE	40
Easo Basket en Clave de Sol	47

Sailkapena	
1. Atletico San Sebastian	9-1
2. Easo Basket en Clave de Sol	9-1
3. Eguzkitza Sagar. TAKE	7-3

Hurrengo jardunaldia	
Goierri Ayma (6)	
Eguzkitza Sagardotegia TAKE (3)	

SENIOR GIZONEZKOAK 2. MAILA	
18. jardunaldia	
Elorri-Aldapa	55
Artesanos Juantxo Eibar Sask.	63

Eskualdekoek ez dute lortu punturik batzea

Altuna III.ak eta Tolosak tanto batengatik galdu dute, eta Peña II.a eta Mariezkurrena II.a 14 tantotan geratu ziren

Erredakzioa

Binakako Pilota Txapelketa finalerdien ligaxkan sartu da eta lehen jardunaldian eskualdeko pilotariek ez dute garaipenik lortu. Altuna III.ak eta Tolosak 22-21 galdu zuten Laso eta Imazen aurka, eta Peña II.ak eta Mariezkurrena II.ak 22-14 Elordi eta Zabaletaren aurka.

Altunak eta Tolosak partida gogorra jokatu zuten, eta hasieran abantaila ona lortu bazuten ere, Laso eta Imazek buelta eman zioten partidari, eta azkenean gorriek garaipena lortu zuten. Tolosak, gainera, minez bukatu zuen partida. Peñak eta Mariezkurrenak tarteka tanto onak jokatu zituzten, baina huts dezent egin ere bai, eta Elordik eta Zabaletak erregulartasun handiagoa erakutsi zuten.

Bigarren jardunaldia elkarren aurka jokatu dute eskualdeko pilotariek: Altuna III-Tolosa bikoak eta Peña II-Mariezkurrena II bikoak igande arratsaldean neurtuko dituzte indarrak, Eibarko Astelena pilotalekuan.

MENDIZABAL, TXAPELDUN

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzak antolatu duen Euskal Herriko Emakumezkoen Gomazko Paletako Irekia irabazi du Maider Mendizabal anoetarrak elite mailan, Irazustabarrena bikotekidearekin. 30-26 irabazi zien Murillo eta Galdosi.

LARRARTE, FINALIK GABE

Miren Larrarte ez da sailkatu Master Laboral Kutxa txapelketako finalera. Miriam Arrillagarekin osatu zuen bikotea bidaniarrak, eta igandean jokatu zuen finalerdia Laudioko pilotalekuan. 18-22 galdu zuten Amaia Aldai eta Nora Mendizabalen aurka. Tolosak min hartuta jokatu ditu azken tantoak, Gasteizko Ogeta pilotalekuan.

ARTOLA ETA KARRIKABURU, JOKO GARBIA TXAPELDUN

Joko garbiko Gipuzkoako Txapelketa izan zen jokoan nagusien mailan, ostiralean, Villabonako Udal Pilotalekuan. Behar Zanako Jon Ander Artola eta Fredo Karrikaburu izan ziren ira-

bazleak, 40-28 gailenduz Zubietan 1 taldeko Josu eta Joseba Aizpurua anaiei.

ARREGI, GARAILE

Berria Erremonte Txapelketako B multzoko bigarren jardunaldiko partida jokatu dute, eta Odei Arregi tolosarrak eta Zaldua II.ak 35-3 irabazi zieten Jon Irazu adunarrari eta Zubiriri.

Une honetan, Odei Arregi eta Zaldua II.a dira B multzoko liderak, 4 punturekin. Irazuk eta Zubirik 3 puntu dituzte, eta Loitegik eta Eskuderok, -1 puntu. Hurrengo jardunaldian, Arregik eta Zaldua II.ak, Loitegi eta Eskuderoren aurka jokatu dute partida.

INTXURRE, IRABAZLE

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzak antolatutako Euskal Herriko Ezker Paretako Kluben Arteko Txapelketan Intxurre elkartek eskuz binakako kadete mailan jantzi zuen txapela. Intxurreko Murua eta Segurola bikoak 12-22 irabazi zion Lapke elkarteko Iturbe-Izagirre bikoari.



ESKOLA TXIKIEN TOPAKETA BERAZUBIN

600 haur elkartu ziren ostiralean Gipuzkoako Eskola Txikien Topaketan. Tolosako Berazubi estadioan elkartu, eta hainbat kirol eta jokotan aritu ziren. Guztira Gipuzkoako 24 eskola txikitako ikasleak izan ziren, eta horiei Berastegiko eskola ere batu zitzairen. Eskualdeko eskola txiki guztietako ikasleak izan ziren: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Berrobi, Bidadia-Goiatz, Ikaztegieta, Larraul, Lizartza eta Zizurkil. I. GARCIALANDA

Unai Zubeldia garaile, XLII. San Gregorio Saria lasterketan



Zubeldia eta Mintegi, helmugan. ATARIA

Erredakzioa Ibarra

Unai Zubeldia txirrindulari ibar-tarrak bere lehen garaipena lortu du afizionatuen mailan, Berriatuako XLII. San Gregorio Saria irabazita. Laboral Kutxa Team taldeko txirrindularia Iker Mintegi taldekidearekin batera heldu zen azken metroetara, eta eskutik helduta igaro zuten helmuga. 3.12.07ko denbora egin zuten biek, baina Zubeldia aurretik sartu zen. Finisher taldeko Pablo Carrascosa izan zen hirugarren, 3.13.19ko denbora egin da. «Irabaztea beti da polita, eta Ikerrekin eskutik emanda izanda oso berezia da», esan zuen Zubeldiak lasterketa amaitu berri-tan.

Sei txirrindularik osatutako ihesaldian sartu ziren bi taldekideak. Eroriko asko izan ziren lasterketan, batez ere, Ondarroa eta Lekeitioko errepidean. «Gu, zorionez, aurrean kokatuta joan gara hasieran, eta mugimenduekin asmatu dugu, ihesaldian sartu gara eta errematean asmatu dugu», zehaztu zuen Zubeldiak.



I. Anttine Trail probaren sari banaketa Zelaturen egin zen. ZURINE GRACIA

Ait Chaou eta Iturria, azkarrenak

I. Anttine Trail kronoigoeran Hassan Ait Chaou eta Ane Iturria izan dira denbora onena egin dutenak

Imanol Garcia Landa Asteasu

Guztira 75 parte hartzaile izan ziren larunbatean I. Anttine Trail kronoigoeran, eta Hassan Ait Chaou billabonatarra eta Ane Iturria tolosarra izan dira denbora onenak egin zituztenak.

Kronoigoera Iturriotz baserri-tik Hernioko gurutzeraino izan zen, eta euri apur bat egin bazuen ere, giro egokia zegoen mendian gora korrika egiteko. Gizonezkoetan, Hassan Ait Chaou billabonatarra izan zen denbora onena egiten, 25.14 markatuz. Lesio batetik atera berri-tan, Ait Chaouk beste behin erakutsi du aldapa gora duen gaitasuna. Bigarren, oso gertu, Axier Artola

amezketarra izan zen, 25.32 egi-nez, eta hirugarren Jokin Tolosa anoetarra, 26.20rekin.

Emakumezkoetan Ane eta Irene Iturria ahizpa tolosarrak izan ziren azkarrenak. Anek 33.16ko denbora egin zuen, eta Irenek 34.02. Hirugarren, Ainhoa Usandizaga oriotarra izan zen, oso gertu bigarren postutik, 34.12 egin baitzuen. Lehen hiru sailka-tuei, gizonezkoetan zein emaku-mezkoetan, eman zitzaizkien sa-riak, eta baita lehen herritarrei ere. Gizonezkoetan, lehen astea-suarra Lander Aizpuru izan zen, bosgarren sailkatua orokorrean (27.56), eta emakumezkoetan Isabel Dumall, hau ere bosgarre-na sailkapen orokorrean (38.31).

Brontzezko bi domina Ibarrentzat

Munduko Txapelketatik pozik itzuli dira Ibarra Sokatira Taldekoak; emakumeek lortu dituzte dominak



Ibarra Sokatira Talde-tik Munduko Txapelketara joan diren taldekideak. LUR GIL

I. Garcia Landa Ibarra

Munduko Sokatira Txapelketan brontzezko bi domina lortu ditu Ibarra Sokatira Taldeak. Aurreko astean izan zen Ipar Irlandako Parkgate herrian, eta klub-en arteko lehian jantzi zituen bi domi-nak, emakumezkoen 500 kiloko eta 540 kiloko kategorietan.

Bestalde, Ibarra Sokatira Taldeko mutilak 600 kiloko mailan lehiatu ziren. Guztira hamabi parte hartzaile izan ziren, sei taldeko bi multzotan banatuta, eta Ibarrakoak laugarren geratu zi-ren beraien multzoan. Beste par-te hartzea 580 kiloko misto kate-gorian izan zen. Bi talderekin lehiatu ziren: Ibarra A taldeak

laugarren postua lortu zuen bere multzoan eta Ibarra B taldeak seigarrena berean.

«Oso pozik gaude lortutakoa-rekin», esan du Andrea Aldazabal taldeko prestatzaileak. 500 kiloko kategorian Txinako Txina Ansteel taldearen aurka irabazi zuten brontzezko domina. Txina Taipei-ko Jingmei Dai Shi Dai tal-dea sailkatu zen lehen postuan, eta bigarren Beti Gazte nafarrak izan ziren. 540 kiloko kate-gorian, Ibarra 490 kilo pisatzen zuen zortzikoarekin lehiatu zen, eta meritu handiz lortu zuten hi-rugarren postua, azken neurke-tan Gaztediri irabaziz. Lehen sailkatua Txina Ansteel izan zen eta bigarren Beti Gazte.

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK
ataria@ataria.eus
Tel.: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 11:00k arte
hartzen ditugu



**Igor Iñurritegi
Lasa**

Hilaren 10ean hil zen 42 urte zituela.

- Goian bego -

Gurasoak: Alberto eta Maria Dolores; anaia: Gorka;
osaba-izebak: Maria Luisa eta Jose Mari (†),
Maria Dolores eta Javi (†), Juan Mari, Conchi
eta Sebastian, Jose Ignacio; lehengusuak eta
gainerako ahaideak.

LEGAZPI, 2023ko martxoaren 14an.



Patxi Kepa Uriarte Perez

*Hainbestetan abestu dugu elkarrekin.
Zuk utzitako lorratza betiko da gurekin.
Jarraituko dugu batera kantatzen mila eresi
...Eternitatean...*

Aurrez aurre izan arte, Patxi

Eresoinka taldea

TOLOSA, 2023ko martxoaren 14an



ASTEARTEA, 2023KO MARTXOAK 14
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 14

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Mexikoko istorioak Martha Escudero eta Marta Alzateren ikus-kizuna, liburutegian, 17:00etan.

Anoeta. Herriko festak antolatzeak bilera, udaletxean, 18:00etan.

Berastegi. Oinez Berastegi, plazatik 10:30ean abiatuta. Ondoren, hamai-ketakoa.

Tolosa. Tolosatzen: Emozioen gimnasioa. Kultur etxean, 17:30etan.

Tolosa. Magama mia! antzezlan, Beatriz Egilazabalekin. Topic-en, 19:00etan.

Villabona. Asisko Urmenetaren Amaiur! Libera State eleberrir grafikoaren aurkezpena, Subijana etxean, 19:00etan.

Zizurkil. Sukaldaritza ikastaroa, Javi Rivero eta Gorka Ricorekin. Urka-mendi elkartearen, 19:00etan.

28 KANALA

08:00. Kirolak Tolosaldean; **11:30.** Tolosaldea Gertutik; **16:00.** Pintxo Pote; **17:00.** Eugeniren txokoa (Joseba Aurkenerena); **21:30.** Tolosaldea Gertutik; **22:00.** Ekoizpen Duina Kontsumo Herrikoia (Julen Portillo)

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
10:00. Patxadaz. Elkarriketak.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
14:00. Historia. Joxemi Saizar.
18:00. Haimarren saioa. Haimar Malkorraren saioa.
20:00. Pizti gautarrak hontzari. Aitor Atxegari elkarriketa.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. C. Bronte. Koro-kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalaretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ezegonkorra. Goizean hodeiak oso ugariak izango dira eta euri zaparrada batzuk izango dira, non tarteka mardul botako duen. Arratsaldeak aurrera egin ahala atertze joera hartuko du eta azken orduetan ateri geratuko da, zeruan ostarate batzuk irekiko direlarik. Haizeak mendebal/ipar-mendebaldetik bizi joko du. Tenperatura jaitsi egingo da, 12-14 graduan joz goia. Elur-maila 1.300 metroan kokatuko da.

Bihar. Giro ederra. Goizeko lehen orduetan hodei batzuk agertuko badira ere, ateri egongo da eta eguerdirako zerua ia erabat urdin geratuko da. Arratsaldean, hodeiren bat salbu, zeru urdina eta eguraldi eguzkitsua nagusituko dira. Haizea aldakor ibiliko da, tarteka ekialdeko ukitu batekin. Tenperatura igo egingo da eta 18-19 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Katiuska taldeak Afizioz lehiaketa irabazi du

Antzerki talde tolosarrak 'Armiarma' lanari esker lortu du saria; aktore onenaren saria Tolosako taldeko Idoia Bengoetxeak jaso du

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Katiuska antzerki taldeak Afizioz lehiaketako lehen saria eskuratu du, iaz estreinatu zuten *Armiarma* antzezlanarekin. Lehiaketa berean sari gehiago ere lortu dituzte Tolosaldekoek. Izan ere, aktore onenaren saria ere Katiuska taldeko Idoia Bengoetxeak eskuratu du.

Euskarazko antzerki sorkuntza sustatu eta sortzaileen lana ezagutzera emateko helburuz antolatzen du Afizioz lehiaketa Debagoieneko Antzerki Plataformak, eta larunbatean ospatu zuten sari banaketa Elgetako Espaloia antzokian.

Bost antzerki taldek hartu zuten parte lehiaketan: Tolosako Katiuska antzerki taldea, Deba-ko Goaz antzerki taldea, Berme-ko Buselektrikue konpainia, Oñatiko DAP helduen taldea eta Iker Plazaolaren Triskantza ekimena.

Sari nagusia, aipatu moduan, Tolosako taldeak jaso du, *Armiarma* antzezlanarekin. Bigarren saria, berriz, Bermeoko Buselektrikue taldeak lortu du *Añenak publikoari* izeneko lanarekin. Aktore onenaren saria Katiuska taldeko Idoia Bengoetxeak eskuratu du, eta publikoarena Oñatiko DAP helduen taldeak jaso du.



Katiuska antzerki taldeko kideak. E. MAIZ

Ilusioz hartu dute tolosarrek saria: «gustatzen zaigulako aritzen gara antzerkia egiten, eta guretzat saririk onena plazak izatea eta gure lana eskaini ahal izatea da», adierazi du Idoia Bengoetxeak. Horregatik, «politena» lehiaketan parte hartu ahal izatea izan dela esan du. Abenduan egin zuten *Armiarma* antzezlanarekin azken emanaldia; «lehiaketarena atera zenean aukera polita izan zitekeela pentsatu genuen, horrekin agian beste lekuren batean antzezteko atea ireki ahal zirelako». Bada, asmo horrekin joan, eta irabazi.

Eta ez antzezlanagatik soilik. Baita, aktore onenaren saria ere. Bengoetxeak azaldu duenez, «inondik inora» espero ez zuen saria: «Oso pozik nago. Sorpresa handia izan da niretzat, ez bainuen espero».

Antzerki lehiaketaren bueltako eguna bera «oso polita» izan zela kontatu du tolosarrak. «Gure lana antzezteko eta erakusteko oholtza bat izateaz gain, beste taldeak ikustea, beraiekin elkartzea, elkar ezagutzea... polita izan zen». Gainera, «oso giro ona eta lagunartekoa» izan zela nabarmendu du.



TURE ESKAINTZA Heziketa-zikloek, 2.000 orduko iraupena dute, "D" hizkuntza eremuan.

NEKAZARITZA OINARRIZKO MAILA
• Nekazarietako eta Abeltzaintzako jardueretako Oinarrizko Profesionala.

ERDI MAILA
• Lorezaintza eta Loregintza Teknikaria.
• Nekazarietako eta Abeltzaintzako Ekoizpeneko Teknikaria.

GOI MAILA
• Basoa eta Natur Ingurunearen kudeaketarako Goi maila teknikaria.

ELIKAGAIEN INDUSTRIA ERDI MAILA
• Elikagaiak Eraldatzeko Teknikaria.

ZIKLO BERRIA

ZIKLO BERRIA

ATE IREKIAK

Martxoak 22 **Martxoak 25**
Astezkera · 16:00 **Larunbata** · 11:00

Maiatzak 5
Ostirala · 16:00

Elbarrena Auzoa, 12 · ZIZURKIL
943 692 162
fraisoro@fraisoroeskola.eus

Fp

CIFP FRAISORO ESKOLA LH II

